



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko azaroaren 11

123. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duena. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Diabetesaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasle konfinatuei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, on-line irakaskuntzari ekin ahal izateko ekipo informatikoak erosteari eta ikastetxeetan banatzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, “Health Big Data Hub” proiektuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, “Centro Internacional de Investigación Inteligencia Artificial” proiektuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, “Consolidación Sociedad-conocimiento” proiektuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, “Ebro Food Valley” proiektuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, “Next Generation UE” planari aurkeztutako proiektuei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroa 2030 Estrategia Digitalari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, osasun etxeak larunbatetan irekitzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).

- Galdera, osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako profesional etorkinen zerrendari eta haien kontratazioari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako profesional etorkinen zerrendari eta haien kontratazioari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzko abenduaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren 6.2 artikulua aplikatuta jasotako konpentsazioei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuak N-135 errepidean aurreikusitako ekintzei buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (13. or.).
- Galdera, atzerrian diren nafarrei zuzendutako Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren ekintzei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, migrazioari buruzko politiken koordinazioari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2020ko abenduaren 14ko**

12:00ak arte luzatzea. Foru Lege proiektua 2020 ekainaren 25eko 72. NPAOn argitaratu zen (10-20/LEY-00011).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Diabetesaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bat egiten du Diabetesaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin, eta urdinez argiztatu du bere egoitzaren fatxada heldu de azaroaren 14an.

2. Erakunde eskudunak premiatzen ditu diabetes gaixotasunari aurrea hartzeko politikak sustatzen jarrai dezaten.

3. Beharrezkotzat jotzen du gaixoen eta profesionalen diabetes arloko prestakuntza eta hezkuntza areagotzeko neurriak sustatzea.

4. Uste du beharrezkoa dela diabetesaren ikusgaitasuna sustatzea, eta aldeztu egiten ditu ANADIK Diabetesaren Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatu dituen jarduerak”. (10-20/DEC-00100)

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzkoa.*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotako espediente kopurua, urte hasieratik (urriaren 31ra arte), hilabeteka xehakatur.

Adierazi horietatik zenbatek jasotzen duten errenta bermatua.

Azken horietatik, adierazi zer portzentaje ordainduko den, oro har, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kontura eta zenbat errenta bermatuaren kontura.

2. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzeko eskubiderik gabe errenta bermatua jasotako espediente kopurua, urte hasieratik (urriaren 31ra arte), hilabeteka xehakatur.

3. Nafarroako Gobernuak zenbat diru uste du aurreztuko duela 2020an bizitzeko gutxieneko diru-sarrera abian jartzen denean?

4. Nafarroako Gobernuak zenbat diru uste du aurreztuko duela 2021ean bizitzeko gutxieneko diru-sarrera abian jartzen denean?

Iruñean, 2020ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasle konfinatuei buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasle konfinatuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

- Nafarroako ikastetxeetan zenbat ikasle konfinatu dira PCR probetan positibo emateagatik edo kontaktu estuzat hartuak izateagatik, ikasturtea hasi eta urriaren 30era arte, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan? Eman datuak sarearen, ikastetxearen, etaparen eta mailaren arabera bereizirik.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, *on-line* irakaskuntzari ekin ahal izateko ekipo informatikoak erosteari eta ikastetxeetan banatzeari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko galdera, *on-line* irakaskuntzari ekin ahal izateko ekipo informatikoak erosteari eta ikastetxeetan banatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2020/2021 ikasturtea hasi aurretik Hezkuntzako kontseilariak 9000 ekipo informatiko, 500 tablet eta *streaming* bidez lan egiteko 1000 kamera erostea iragarri zuen, behar izanez gero *on-line* irakaskuntzari ekin ahal izateko. Ekipamendu horri gehituko litzaizkioke Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren eta Red.es enpresa publikotik iritsitako 3500 ekipo. Gaur egun:

- Ekipamendu horretatik guztira zenbat banatu da ikastetxeetan?

- Zein dira banatzeko irizpideak?

- Iragarritako erosketak egin ez badira, noizko aurreikusten du Departamentuak bukatzea?

- Zergatik atzeratu dira?

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, “Health Big Data Hub” proiektuari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, “Health Big Data Hub” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel

Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak “Health Big Data Hub” proiektua aurkeztu du Next Generation UEra.

1.- Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du proiektu horretarako 2030era arte?

2.- Nafarroako Gobernuak urteko zer zenbatespen egiten du proiektu horretarako Next Generation UEtik jasoko lituzkeen funtsei dagokienez?

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, “Centro Internacional de Investigación Inteligencia Artificial” proiektuari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, “Centro Internacional de Investigación Inteligencia Artificial” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak “Centro Internacional de Investigación Inteligencia Artificial” proiektua aurkeztu du Next Generation UEra.

1.- Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du proiektu horretarako 2030era arte?

2.- Nafarroako Gobernuak urteko zer zenbatespen egiten du proiektu horretarako Next Generation UEtik jasoko lituzkeen funtsei dagokienez?

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, “Consolidación Sociedad-conocimiento” proiektuari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, “Consolidación Sociedad-conocimiento” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel

Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak “Consolidación Sociedad-conocimiento” proiektua aurkeztu du Next Generation UEra.

1.- Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du proiektu horretarako 2030era arte?

2.- Nafarroako Gobernuak urteko zer zenbatespen egiten du proiektu horretarako Next Generation UEtik jasoko lituzkeen funtsei dagokienez?

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, “Ebro Food Valley” proiektuari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, “Ebro Food Valley” proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel

Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak “Ebro Food Valley” proiektua aurkeztu du Next Generation UEra.

1.- Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du proiektu horretarako 2030era arte?

2. -Nafarroako Gobernuak urteko zer zenbatespen egiten du proiektu horretarako Next Generation UEtik jasoko lituzkeen funtsei dagokienez?

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, “Next Generation UE” planari aurkeztutako proiektuei buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, “Next Generation UE” planari aurkeztutako proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusiak 3 proiektu aurkeztu ditu Next Generation UE.

1.- Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du 3 proiektu horietarako 2030era arte?

2.- Nafarroako Gobernuak urteko zer zenbatespen egiten du proiektu horietarako Next Generation UEtik jasoko lituzkeen funtsei dagokienez?

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Nafarroa 2030 Estrategia Digitalari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroa 2030 Estrategia Digitalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan eza-

rritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroa 2030 Estrategia Digitalerako 716 milioi euroko inbertsioa aurreikusi da eta Next Generation UEra aurkeztutako proiektuetan sartu da.

1.- Nafarroako Gobernuak urteko zer aurrekontu aurreikusten du proiektu horretarako 2030era arte?

2.- Navarra Digital Next Generation proiektua 8 osagairekin egituratzen da, zeinak 35 inbertsiotan bereizten baitira. Zein da aurreikusten den urteko aurrekontuaren xehetasuna, aipatu osagai eta inbertsio bakoitzeko?

3.- Nafarroako Gobernuak urteko zer zenbatespen egiten du proiektu horretarako Next Generation UEtik jasoko lituzkeen funtsei dagokienez?

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Angel Ansa

Galdera, osasun etxeak larunbatetan irekitzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, osasun etxeak larunbatetan irekitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zein izan dira helburuak, langileak jartzeko prozedura eta egin beharreko ebaluazioa osasun etxeak larunbatean berriro irekitzeko erabakiari dagokienez?

Erantsi neurria justifikatu zuten txosten teknikoak, irekitzeko behar diren langileen gaineko txosten teknikoak, larunbatean irekitzeko osasun langileak bermatzeko erabili den prozedura eta zenbatesitako kostuaren xehetasuna (zehaztu zentroak, profesional kopurua zentro bakoitzeko eta ordaindutako zenbatekoa, orduko eta profil profesionaleko).

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako profesional etorkinen zerrendari eta haien kontratazioari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako profesional etorkinen zerrendari eta haien kontratazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Jakin dugunez Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako 144 profesional etorkinen zerrenda bat igorri zion zure departamentuari. Zergatik ez da egin zure departamentuan inolako kontrataziorik zerrenda horretako pertsonekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako profesional etorkinen zerrendari eta haien kontratazioari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako profesional etorkinen zerrendari eta haien kontratazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Jakin dugunez Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak osasungintzaren eta arreta sozialaren adarretako 144 profesional etorkinen zerrenda bat igorri zion zure departamentuari. Zergatik ez da egin zure departamentuan inolako kontrataziorik zerrenda horretako pertsonekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzko abenduaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren 6.2 artikulua aplikatuta jasotako konpentsazioei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari-que jaunak aurkezturiko galdera, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzko abenduaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren 6.2 artikulua aplikatuta jasotako konpentsazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Zein dira Nafarroako Foru Komunitateak azken 10 urteotan jasotako zenbatekoak autonomia-erki-degoendako konpentsazio gisa, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzko abenduaren 22ko 8/1980 Lege Organikoaren 6.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz?

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuak N-135 errepidean aurreikusitako ekintzei buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkezturiko galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuak N-135 errepidean aurreikusitako ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, idatziz erantzun dakion.

Zer ekintza egiteko asmoa du Lurralde Kohesiorako Departamentuak N-135 errepidean, bereziki, Zubiri, Zabaldika eta Zuriain herrietan?

Zer jarduketa egiteko asmoa du N-135 errepidean Ollokiko tartean, kontuan hartuta jasaten duen trafiko handia?

Iruñean, 2020ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, atzerrian diren nafarrei zuzendutako Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren ekintzei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, atzerrian diren nafarrei zuzendutako Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer ekintza edo ekimen gauzatu ditu Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak, Kanpo Ekin-tzako Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatuta, atzerrian diren nafarrei zuzendutako ekintzetan?

Zenbat bilera egin dira helburu horrekin bi zuzendaritza nagusietako taldeen artean?

Iruñean, 2020ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, migrazioari buruzko politiken koordinazioari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, migrazioari buruzko politiken koordinazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Migrazio Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zeharkako izaera duenez, zer ekintza edo ekimen eta zer bide erabilita gauzatu ditu Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Gobernuko beste departamentu edo erakundeekin koordinatuta, migrazioari buruzko politikak koordinatzeko?

Haietako zeintzuk izan dute helburu arrazismoaren eta xenofobiaren inguruko arazoei heltzea?

Iruñean, 2020ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

